

2.5.5. Arauak: morfosintaxia (nahasian).

Ariketak

1. **Jarraipen bat okerra da euskara batuan. Eguraldi ona eginez gero...**
 - a) joaten gara bihar mendira?
 - b) etorriko zara mendira gurekin?
 - c) bihar mendira etorriko al zinateke?

2. **Zein ez dago ondo euskara batuan?**
 - a) Konkistatzaileek, hainbat filosoforen iritzia aintzat hartuz, indioak ez zirela pertsona erabaki zuten.
 - b) Errudunek barkamena eskatuz bukatu zuten bilera gogor hura.
 - c) Istripu larri bat egon da Donostiako bulebarrean, bi lagun zaurituta suertatuz.
 - d) Gobernuaren aginduei jarraituz, telefono tarifak merkatu egingo dira.

3. **Zein da zuzena euskara batuan?**
 - a) Afaltzera joateko gonbidapena luzatu didate.
 - b) Errealak gol berri bat sartu du atsedena baino lehen.
 - c) Azterketa hori berriro egiteko aukera luzatu digute.
 - d) Bilerarako deialdia egingo dut email baten bidez.

4. **Zein zerrendatan daude ortografia akatsak?**
 - a) baitakit, baikenuen, bainintzen
 - b) eskarmentua, hospitalea, textua
 - c) energiarik gabe, lotsarik gabe, arnasarik gabe
 - d) ziur, leuna, ilargia

5. **Zein da zuzena euskara batuan?**
 - a) Hori horrela gertatuko denaren susmoa daukat.
 - b) Ez dut uste hori horrela gertatuko dena.
 - c) Iruditzen zait hori horrela gertatuko denik.
 - d) Beldur naiz ez ote den hori horrela gertatuko.

6. **Zein da zuzena euskara batuan?**
 - a) Uda honetan herrialde desberdinetan ibili naiz bizikletan.
 - b) Arazo desberdinak mahaigaineratu ziren bileran.
 - c) Ikerlari horren proposamen desberdinak asko eztabaidatu izan dira.
 - d) Irakasleak eta ikasleak proposatutako irtenbideak desberdinak ziren.

7. **Sendatuko ... da, behingoz, nire lagun errukarria!**
 - a) ohi
 - b) al
 - c) ei
 - d) ahal

8. **Zein da zuzena euskara batuan?**
 - a) Lantegi horretan diharduten gehienek ez dituzte ikasketarik.
 - b) Berandu baino lehen honi edo hari heldu beharko diogu.
 - c) Gazteei ez zaizkie zaborrak jasotzea edo nekazaritzan aritzea gustatzen.
 - d) Jende askok ez du kanpokoekin harremanak izan nahi.

9. Ni ez naiz iristen; ... ogia, mesedez?

- a) hurbil iezadazu
- b) hurbil ahal didazu
- c) hurbiltzen didazu
- d) hurbilduko didazu

10. Zein da zuzena euskara batuan?

- a) Gol berri bat sartu du Llorentek!
- b) Jazarpen berri bat salatu dute epaitegian.
- c) Beste irakasle bat etorriko ahal da!

11. Hurrengo hitzetatik , euskara batuan zein dago zuzen idatzita?

- a) pixkat
- b) zergaitik
- c) batik bat
- d) institutoa

12. Zein da zuzena euskara batuan?

- a) Gure txirrindulariek izugarrizko arrakasta lortu egin dute.
- b) Etxe berriak egundoko dirutza kostatu egiten dira.
- c) Ordulari dotore hori aurkitu ez, ostu egin zuen Jonek.
- d) Istripu baten erruz, errepidean sei orduz mugitu egin gabe egon ginen.

13. Zein da zuzena euskara batuan?

- a) Haur bakartia zen eta ez zituen lagunik.
- b) Gorroto ditut ontziak garbitzea.
- d) Emaizten arabera lansaria izango dugu.
- e) Zumaiako arraunlariak beti ematen dute maila ona.

14. Zein da zuzena euskara batuan?

- a) Badaude herrialde batzuek giza eskubideak zapaltzen dituztenak.
- b) Lagun batzuk esan didate atzoko festa sekulakoa izan zela.
- c) Ez dut ulertzen zure lagun batzuek zergatik diren hain leloak.
- d) Batzuek beti protesta egiten dute.

15. Zein da zuzena euskara batuan?

- a) Laneko unerik arriskutsuena muntaia da zeren kristal hauskorak jartzen dituztelako.
- b) Aitarekin jarri zen lanean, ez baitzuen beste zereginik topatzen eta.
- c) Bere doinuen gozotasuna dela-eta, Gerald Finziren obrak oso ezagunak dira.
- d) Nahiz eta bankua lapurtu arren, ez du lortu aberats izatea.

16. Zein da zuzena euskara batuan?

- a) Gure lagunak esan dute bihar euria egingo duela.
- b) Oso langilea denez, gogoko ditu lan neketsuenak hartzea.
- c) Askori nabaritzen zaio azkar alde egiteko gogoia.
- d) Guraso, ikasle eta irakasleei gustatzen zaizkie Eskola Kontseiluetan parte hartzea.